

BEZEROEKIKO HARREMANA

Gure proiektua aurrera eramateko ezinbestekoa iruditzen zaigu gure berezoekin harreman bikana edukitzea. Gu, gure bezeroentzako gaude eta beraiek edozein momentuan laguntzeko edo dudak azaltzeko prest gaude. Gure bezeroak mantentzeaz gain, berriak erakartzea oso garrantzitsua dela deritzogu. Hasierako bezeroak mantenduz eta beraiekin harreman ona edukiz gero, hauek produktua gomendatuko die beste batzuei, erosle berriak erakarrit.

Lehenengo prozesua betetzeko, hau da, plastikoen bilketa egiteko beti ikastetxe guztiekin harremanetan ibiliko gara. Oso garrantzitsua da hauekin harremanetan ibiltzea, izan ere beraiek izango dira plastikoa emango digutenak. Beraiekin adostuko dugu noiz joan ikastetxeetara plastikoa jasotzera eta baita ere beraiek abisatuko gaituzte nola doan bilketa hori. Ezinbestekoa da kontaktuan ibiltzea, izan ere bertakoek ekarritako plastikoa da gure produktuaren oinarria, hau da, materiala beraien esku dago. Ikastetxeetako pertsonak gure hornitzaileak izateaz gain, gure bezeroak ere izango dira, hau da beraiek ere gure produktuaz gozatuko dutela uste dugu. Beraz hauekin tratu ona eduki behar dugu bai hornitzaile edo bezero moduan.

Baita ere Toys R' Us dendarekin ibiliko gara maiztasunez kontaktuan. Oso garrantzitsua da beraiekin erlazio estu eta on bat edukitzea beraiek izango direlako arduradunak gure produktuaren publizitatea egiteko eta saltzeko. Halaber, beraiek abisatuko digute ea produktua ondo saltzen ari den, arrakasta izaten ari den, produktua noiz agortu den berriro ere saltzen jartzeko...

Hala ere gure bezeroek zuzenean gurekin harremanetan jarri nahi baldin badute webgune bat sortu dugu gurekin hitz egiteko "txat" baten bidez. Webgunean bertan informazio asko egongo da eskuragarri gure produktu, proiektu eta politikari buruz. Era berean, webgunean mugikor zenbaki bat egongo da bezeroren batek bere dudak edo kezkek gurekin plazaratu nahi baditu. Mugikor zenbaki hori noski ikastetxeekin eta Toys R' Us-eko langileekin kontaktuan ere jartzeko balioko digu.

Guretzako garrantzitsuena gure bezero eta kolaboratzaileekin eguneroko harreman on eta estu bat edukitzea da, izan ere guretzako proiektu hau aurrera eramanez ahal izateko eta dena ondo koordinatzeko komunikazioa oso garrantzitsua dela uste dugu.